



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Dirección de Juventud y Deportes



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

## Euskadiko gazteen migrazio-mugimenduen azterketa

Euskaditik irteten diren gazte gehienek atzerriko herritartasuna dute

***Azken hamarkadan, Euskadin jaio eta atzerrira joandako gazteen itzulera-tasa % 61ekoa izan da***


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadiko [gazteen migrazio-mugimenduen azterketa](#) egin du, [Eustaten Migrazio Mugimenduen Estatistikaren](#) informazioa oinarri hartuta.

Eustaten migrazio-mugimenduen estatistikaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan urtez urte gertatutako egoitza-aldakuntzak ebaluatzea da, Udal Errolda datu-iturri duela. Estatistika horrek honako hauek hartzen ditu kanpo-migrazioetat: bai atzerria helburu dutenak, bai Estatuko gainerako autonomia-erkidegoak helburu dituztenak ere. Gauza bera gertatzen da immigrazioekin, EAera urtero heltzen diren pertsonen jatorria adierazita. Gainera, estatistika horretan jaioterria adierazten da. Horri esker, jakin dezakegu EAEn jaiotako zenbat lagun itzuli diren Euskadira Espainiako beste autonomia-erkidegoetatik edo atzeritik.


Jarraian, daturik esanguratsuenak laburbilduko ditugu.

18 eta 34 urte bitarteko gazteen migrazio-saldoa, EAEn, positiboa da. Eustaten Migrazio Mugimenduen Estatistikaren arabera, gehiago dira EAera heltzen diren gazteak, bertatik kanpora doazenak baino.

EAeko migrazio-mugimenduek, bai sartzekoek, bai irtetekoek, beheranzko joera hasi zuten 2007an. Zifra absolututan, beherakada gertatzen ari da Euskadira heltzen diren edo Euskaditik alde egiten duten gazteen kopuruan.



Espainiako gainerako autonomia-erkidegoak helburu dituzten irteeren jaitsierari zor zaio emigrazio-kopuru osoaren beherakada. Izan ere, atzerrirako irteerek gora egiten dute zertxobait, eta egonkortasunez. Nolanahi ere, gazteen emigrazio gehienak Estatuko gainontzeko tokietara izaten dira.




Atzerrirako emigrazioen gorakadaren protagonista gehienak atzerrian jaiotako gazteak dira: jatorriko herrialdera bueltatzen dira edo Espainiatik kanpoko beste toki batzuetara joaten. 2011n, 1.681 gazte irten ziren atzerrira; horietatik, EAEn jaiotakoak 593 izan ziren.

Emigrazioekin gertatzen den bezala, immigrazioetan ere jaitsiera handia egon da 2007tik aurrera, atzerritiko immigrazioak behera egin duelako, nagusiki.

EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen migrazio-mugimenduetara mugatzen bagara, zera ikus dezakegu: azken urteotan behera egin dutela emigratioek, eta immigrazioek edo Euskadirako itzulerek maila antzekoetan jarraitzen dutela.




**EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen migrazio-  
mugimenduen bilakaera. 2000-2011 (Datu absolutuak)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio-mugimenduen estatistika)

EAEn jaiotako gazteei dagozkien immigrazio-datuei esker, itzulera-tasa kalkula dezakegu: gaitasunak —norberarenak nahiz profesionalak— hobetzera irteten diren gazteak zein neurritan bueltatzen diren zenbatu nahi dugu, nolabait.

**EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen migrazio-  
mugimenduen bilakaera, jatorriaren eta helburuaren arabera. 2000-2011  
(Datu absolutuak)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio-mugimenduen estatistika)



Itzulera-tasa globala (EAEn jaio eta Euskadira bueltatzen diren gazteen ehunekoa, kanpora doazen gazteen kopuru osoarekiko) % 48koa izan da 2000-2011 aldian. Horrek esan nahi du kanpora doazen erdiak Euskadira itzuli direla.

Atzeritiko itzulera-tasa kalkulatzeko, honako kalkulu hau egin behar da: EAEn jaio eta Euskadira atzeritik itzultzen diren gazteen ehunekoa atzerrira emigratu dutenen kopuru osoarekiko. 2000-2011 aldian itzulera-tasa % 61ekoa izan da. Horrek esan nahi du EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetatik 6, Euskaditik kanpo joan eta gero, itzuli egin direla. Azken urteotan, hala ere, atzeritiko itzulera-tasa jaisten ari da: 2011n % 41ekoa izan da.

EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen Euskadirako itzulera-tasen bilakaera, jatorriaren arabera. Urtez urtekoa eta 2000-2011 aldi osokoa (%)

%	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Metatua 2000- 2011
<b>Itzulera-tasa globala</b>	47	51	46	45	46	50	42	40	46	54	51	59	48
<b>Espainia-tiko itzulera-tasa</b>	46	53	43	44	42	47	40	39	45	54	50	62	46
<b>Atzeritiko itzulera-tasa</b>	197	33	257	56	77	93	70	43	56	57	55	41	61

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio Mugimenduen Estatistika).*

- [Gai honi buruzko beste azterketak](#) (pdf, 47 kb)

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**





## Lan ezak etorkin gazteak Euskaditik kanpora joatea bultzatzen du

### 2011n Euskaditik atzerrira joandako 10.633 gaztetatik, 10.501 atzerritarrek ziren

INEk "[Estadística de flujos migratorios estimados](#)" estatistikan kaleratutako datuen arabera, 2011n 18 eta 29 urte bitarteko 10.633 gaztek emigratu zuten Euskal Autonomia Erkidegotik atzerrira. Horien artean % 98,8k atzerriko naziotasuna zeukaten (10.501) eta % 1,2k bakarrik zuten Espainiako naziotasuna (132).

Datu horiek 2010ekoekin alderatuz gero, ikus dezakegu irteerak areagotu direla eta 2011n 2010ean baino 4.549 gazte gehiago irten direla. Irteeren hazkunde hori zor zaie atzerriko gazteen irteerei, 2011n 2010ean baino 4.694 gazte atzerritar gehiago joan baitziren. Hau da, atzerriko naziotasuna zuten gazteen emigrazioak % 81eko hazkundera izan zuen urte horretan. Aitzitik, Espainiako naziotasuna zuten gazteen emigrazioa murriztu egin da, 2011n 2010ean baino 145 gazte gutxiagok emigratu zuten, beraz, jaitsiera % 52koa izan da.

*18 eta 29 urte bitarteko gazteen emigrazioak Euskaditik atzerrira, naziotasunaren arabera. 2010 eta 2011 urteak (Datu absolutuak eta ehuneko hazkundera/jaitsiera)*

	NAZIOTASUN GUZTIAK	ESPAINIAKO NAZIOTASUNA	ATZERRIKO NAZIOTASUNA
<b>2010</b>	6.084	277	5.807
<b>2011</b>	10.633	132	10.501
Ehuneko hazkundera/jaitsiera	+ 75%	- 52%	+ 81%

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren datuak oinarri hartuta ("Estadística de flujos migratorios estimados")*

2011n Euskaditik kanpora joandako gazteen norako nagusiak Afrika, Europar Batasuna eta Hego Amerika ziren.

*Euskaditik atzerrira emigratutako 18 eta 29 urte bitarteko gazteen norakoak. 2011 urtea. (Datu absolutuak eta ehunekoak)*

Europar Batasuna	Europako gainerako tokiak	Afrika	Ipar Amerika	Erdialdeko Amerika eta Karibea	Hego Amerika	Asia	Ozeania
3.045	179	3.116	153	507	2.504	1.129	1
28,6%	1,7%	29,3%	1,4%	4,8%	23,5%	10,6%	0,0%

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren datuak oinarri hartuta ("Estadística de flujos migratorios estimados")*